

11/10/2009

Egun berezia Trenaren Museoan

EuskoTrenen jabetzakoa den Azpeitiko Trenaren Euskal Museoak XV. urteurrena ospatu zuen atzo. Horretarako, museoan jasota dauden hainbat lurren tren historiko martxan jarri zuten. Besteak beste, Museotik Lasara bitarteko joan-etorria egin zuten lurren lokomotorak honakoak izan ziren: Aurrera (1888), Portugal (1913), Zugastietia (1898) eta Euzkadi (1920). Gainera, atzo, erakustaldia ere egin zuten Museoko arduradunek Creusot-Naval 1158 lokomotora diesel-elektrikoarekin. Lokomotora hori martxan jarri zuten merkantzia bagoiak garraiatuz, 13:15ak aldera.

Jende asko Museoa

Trenaren Museoko arduradunak gustura zeuden atzo eguerdian, jende asko zebilelako museoan. Esaterako, 12:30erako antolatuta zuten lurren treneko ibilaldirako 120 pertsonak izena emanda zuten ordubete lehenago. Gainezka dago eta ezingo dugu beste inor hartu ordu horretarako iragarritako bidaiarako. Beraz, lurren trenean bidaiatu nahi zutenek arratsaldera arte itxoin beharko zuten, izan ere arratsalderako beste bi bidaiak antolatuta zituzten Trenaren Museoan.

Museoa gaur ere zabalik egongo da 10:30etik 14:00etara.